



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko ekainaren 25a

90. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00012. Foru-lege proposamena, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea aldatzen duena. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-24/MOC-00092. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita Herritarren Segurtasuna Babesteko Legea alda dezan. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztu du (4. or.).

—11-24/MOC-00093. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Uharteko Izotz Jauregiaren ingurutzailen termikoan eta aldageletan egin beharreko inbertsioen kostuaren % 80 finantza dezan gutxienez ere. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkeztu du (6. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00012. Foru-lege proposamena, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, biliz, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 121., 122., 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru-lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetzea.

3. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

4. Ekimen hau ekainaren 27ko Osoko Bilkuran sartzea, baldin eta Nafarroako Gobernuaren iritzia jasotzen bada ekainaren 25eko 17:30ak baino lehen. Bestela, Osoko Bilkuran izapidetzea datoren bilkuraldira arte atzeratuko da.

5. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebil tzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legeak zioen azalpenean dio: "Kiro-la segurtasunez egiteko eta lehiaketaren arloan emaitza onak izateko, garrantzi handia du irakaskuntzako eta kirol instalazioetako zuzendaritzaren inguruko kirolariek eta teknikariek prestakuntza egokia izateak". Horretarako, Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legeak berak arautzen ditu kirol-teknikariaren titulazio ofizialak lortzeko irakaskuntzak, Nafarroako kirol-jardueren alorreko prestakuntzaren sustapena eta jarduera jakin batzuetarako titulazioaren derrigortasuna. Zehazki, honako hau xedatzen da 85.1 artikuluan: "Nafarroako lurraldean kirol irakaskuntzan, kirol zuzendaritza teknikoan, entrenamenduan, animazioan eta erregelamendu bidez ezartzen diren kirol izaera teknikoko antzeko beste arlo batzuetan aritzeko, ezinbestekoa izanen da horretan aritzen direnak kasuko titulazioaren jabe izatea, kirol gaietan indarra duten arauekin bat".

Araubide hori dela-eta, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legeak 1.1 artikuluan ezarritako xedea da "Nafarroan kirol arloko lanbide jakin batzuetan hasteko eta aritzeko oinarrizko alderdiak arautzea. Berariaz adieraziko da zeintzuk diren lanbide horiek, lanbide bakoitzaren jardun-eremu funtzional orokorra ezarriko da, eta aditzera emanen da lanbide horietan sartzeko zer kualifikazio eskatzen den".

Bestetik, Foru Komunitateko kirol-sistemaren eta jarduera fisikoaren egoerak beharrezkoa du kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko Foru Legeak arauturiko jarduera egiten ari diren

pertsonen modua izan dezatela horretarako beharrezkoa den titulazioaren edukitza frogatzeko.

Ildo horretan, gaur egun indarra duen araudia-
ren ondorioz, foru legeak ezartzen duen egunean
–2024ko urtarrilaren 1ean alegia– jadanik kirol-
lanbideren batean diharduten pertsonen behin-
behineko gaikuntza eman ahal izateko, beharrez-
koa da haiek egun hori baino lehenago
erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu izana.
Hori horrela, zailtasunak izan genitzake prozedura
hori gauzatzeko. Halatan, ezinbestekoa da arau-
dia eguneratzea, kasuko prozeduran ziurtasuna
eta segurtasun juridikoa lortzeko, halako moldez
non titulazio egokia duten pertsonen ardurapeko
kirol-sistema bat eduki ahal izanen baitugu.

Horregatik, egokitzen jotzen da Nafarroan kirol-
lanbidean hasteari eta jarduteari buruzko 18/2019
Foru Legea aldatzea, foru lege horren zortzigarren
xedapen iragankorrean jasotzen diren eran-
tzukizunpeko adierazpenak aurkezteko denbora-
mugak eguneratuz.

Hori horrela, proposatzen da jarraian adieraz-
ten den moduan aldatzea apirilaren 4ko 18/2019
Foru Legea, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta
jarduteari buruzkoa:

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da 18/2019 Foru
Legea, apirilaren 4koa, Nafarroan kirol-lanbidean
hasteari eta jarduteari buruzkoa, jarraian adierazten
den moduan:

Lehen apartatua. Zortzigarren xedapen iragan-
korra aldatzen da. Testu hau izanen du:

1. Jadanik 2025eko irailaren 1a baino lehen
kirol-lanbideren batean ari direnek egun hori baino
lehen aurkeztu beharko dute erantzukizunpeko
adierazpena.

2. Kirol-lanbidean 2025eko irailaren 1etik aurrera
hasi nahi dutenek lanbidean hasi baino lehen aur-
keztu beharko dute erantzukizunpeko adierazpena.

Bigarren apartatua. Azken xedapenetako lau-
garrenaren 2. apartatua aldatzen da, eta hauxe da
testu berria:

2. Aurrekoa gorabehera, foru lege honetan
araututako lanbideetan aritzeko gaitasuna ematen
duten lanbide-kualifikazioak 2025eko irailaren
1etik aurrera eskatzen ahalko dira.

Azken xedapena. Indar-hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-
an argitaratua izan eta biharamunean hartuko du
indarra.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00092. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuaren premiatzen baita Herritarren Segurtasuna Babesteko Legea alda dezan

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernuaren premiatzen baita Herritarren Segurtasuna Babesteko Legea alda dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Gizarte demokratiko aurreratu batek behar bezala funtzionatzeko funtsezko bikotea dira askatasuna eta segurtasuna; eskubideak eta askatasunak bermatzeko tresna da segurtasuna, ez, ordea, berezko helburua.

Bikote hori uztartzea erronka handia da demokratikotzat jotzen den edo bere burua demokratikotzat hartzen duen gizarte ororentzat; izan ere, herritarren segurtasunaren izenean ezin da eskubide konstituzional bat baliatzea oro har mugatu; aitzitik, herritarren segurtasunaren izenean nazioko nahiz nazioarteko legedia indardunetan

jasotzen diren eskubideak eta askatasunak erraztu behar dira, eta erakunde publiko eskudunei dago-kie, hain zuzen ere, horiek erraztea.

Erakunde publikoek segurtasunaren arloan egiten duten lanak helburu hau izan behar du: oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak baliatzea eragozten duen traba eta oztopo orokentzea. Kaleetako lasaitasunaz ari gara, pertsonen eta haien eskubideen babesaz arduratzeaz, herritarren arteko bizikidetasuna zaintzeaz, espazio publikoak modu baketsuan erabiltzeaz, erakunde funtzionamendua eta oinarrizko zerbitzuen prestazioa normaltasunez egiteko baldintzak bermatzeaz, arau-hauste penalak eta administrazioak prebenitzeaz.

Hortaz, herritarrek askatasunak baliatzeko orduan segurtasunagatik ezarritako intzidentzia edo muga guztiek legalitatearen eta proportzionaltasunaren printzipioak jarraitu behar dituzte, hiru dimentsio aintzat hartuta egin ere: mugatzea egokia izatea (proposatutako helburua lortzeko), beharrezkoa izatea (helburu bera lortzeko hain gogorra ez den beste neurririk ez egotea, alegia) eta mugatze hori zentzu hertsian proportzionala izatea (neurriak interes publikoari onura dakarkio eta horrek eskubidearen erabilera nolabait sakrifikatzea zuzitzen du).

Eta proportzionaltasunaren printzipioa hori da, hain zuzen ere, askatasunaren eta segurtasunaren bikotean lehenetsi behar dena. Lehenbizikoa bigarrenari gailentzen zaio eskubideak erabiltzearen aldeko interpretazioaren printzipioaren argitan, eta edozein zehapen-araubideri dagokionez –zigortzeko ahalmen gisa hartuta–, ahal den gutxien baliatuko da.

Hori guztia gorabehera, indarrean dago Herritarren Segurtasuna Babesteko Legea, *moza/legea* izenez ezaguna dena eta gehiengo osoa zuten PPrene Gobernu batek, Mariano Rajoy lehen-

dakaria zela, onetsi zuena 2015ean maiatzaren 15eko mobilizazioen aitzinean.

Moza! legea eskubideak murrizten dituen lege gisa hartua da –esaterako, biltzeko eta manifestatzeko eskubidea–, bai eta askatasunak –esaterako, adierazpen eta informazio askatasuna, askatasun sindikalak– eta greba-eskubidea ere. Legea orobat kritikatu izan da Poliziaren boterea handituz denez gero arau-hauste administratiboei ezarritako zehapenengatik; izan ere, ordura arte inolaz ere zehatuko ez liratekeen jokabideak zehatzen ahal dira orain, eta beste horrenbeste gertatzen da pertsona arrazializatuak identifikazio indiskriminatuen edo mugako itzulketen kasuan.

Moza! legea ez da soilik politikaren esparrutik kritikatu izan, oinarritzko eskubideak aldeztu dituzten nazioko nahiz nazioarteko organizazio eta entitateek ere kritikatu izan baitute; adibidez, Amnistia Internazionalak, Informazioaren Defentsarako Plataformak, CEAR-Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordeak edo Vienako Konbentzioak.

Moza! legea mantentzeak gabezia demokratiko larria dakar gure gizartearentzat. Eraberritze demokratikoko garai honetan beharrezkoa da lege hori aldatzea. Aldaketa oso bat, legearen artikulugehien aldaketa, kalitate demokratikoa areagotzea ahalbidetuko diguna. Gizarte demokratikoa garenez gero, aurrera egin behar dugu, eta jokiera autoritario orotatik alendu behar dugu, zeren eta gisa horretako politikak baliatzen direnean –Espainiako Estatuko eskuinaren eta eskuin muturraren eskutik heldu ohi dira–, beti ateratzen dira galtzaile herritarren eskubideak eta askatasunak.

Zoritxarrez, orain arte, Espainiako Gorteetan ezin izan da lortu *moza! legea* aldatzeko akordio-

rik, euskal taldearen saiakerak gorabehera (aldaketa hori egiten hasteko lege-proposamen bat aurkeztu zuen). Aurreko legegintzaldiaren amaiera aldean, testu bat adostu zuten EAJk, PSOEek eta Sumar-ek, baina ez ziren hura onesteko garaiz iritsi. Legegintzaldi honetan, Sumar-ek legea aldatzeko lege-proposamen bat aurkeztu du, adostutako testu hura oinarri, eta egia da, orobat, PSOEren eta Sumar-en arteko koalizio-gobernuerako akordioan espresuki jasotzen dela aldatu eta indargabetu eginen dela biltzeko eskubidea eta adierazpen-askatasuna mugatzen duen araudia, *moza! legea* kasu.

Geroa Bain uste dugu Nafarroako gizartea lege horren aurka agertu behar dela, herritarren eskubideak eta askatasunak murrizten dituelako. Hortaz, nor gizartearen ahotsa eta ordezkaritza duena baino, Nafarroako Parlamentua baino, lege horren erreformaren alde agertzeko.

Horregatik guztiagatik, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Herritarren Segurtasuna Babesteko Legea alda dezan, Espainiako Konstituzioan eta nazioarteko legedian jasotzen diren oinarritzko eskubideen eta askatasunen erabilerraren babesarekin bat etor dadin, egungo koalizio-gobernua osatzeko hartu ziren konpromisoak betetzeko.

Iruñean, 2024ko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Blanca Isabel Regúlez Álvarez

11-24/MOC-00093. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita Uharteko Izotz Jauregiaren inguratzaile termikoan eta aldageletan egin beharreko inbertsioen kostuaren % 80 finantza dezan gutxienez ere

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita Uharteko Izotz Jauregiaren inguratzaile termikoan eta aldageletan egin beharreko inbertsioen kostuaren % 80 finantza dezan gutxienez ere.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko eta horren jarraipena batzorde horrek egiteko.

Zioen azalpena

Uharteko Izotz Jauregia foru-erkidegoaren mailako azpiegitura da; hasieratik beretik, ordea, herriko udalaren kontura baizik ez da mantendu.

Nahiz eta Nafarroako Gobernuak hainbat inbertsio finantzatu dituen Uharteko Udalarekin egindako hitzarmenen eta dirulaguntzen bidez, Izotz Jauregiaren emaitzen kontuak defizita ematen du urtero, udalak bere gain hartzen duena, oso-osorik.

Garrantzitsua da azpimarratzea, halaber, izotz-pista hori dela Nafarroa osoan dagoen halako azpiegitura bakarra. Hori dela-eta, Neguko Kiroletan Nafarroako Federazioak ez dauka beste izotz-pistarik kirol jakin batzuetan entrenatzeko edo

lehiatzeko. Izotz Jauregian Uharteko Izotz Taldea ere badago; beraz, astero 300 kirolari inguruk erabiltzen dute izotz-pista. Kirol-jardueraz gain, aipatzekoak dira jendeari irekitako saio libreak, eskola-kanpainak, patinaje inklusiboko programak eta ematen diren ikastaroak.

Guztira, milaka pertsonak erabiltzen dute Uharteko Izotz Jauregia, eta, gainera, kopuru hori gero eta handiagoa egin da azken urteotan. 2022-2023ko denboraldian izotz-pistan jardueraren bat egin duten 23.260 pertsonetatik, 1.042k bakarrik daude Uharteko errolatuta; hau da, % 4,48.

Horrek argi eta garbi erakusten du neurritz kanpoko dela Uharteko Udalak bere gain hartu behar izatea Uharteko Izotz Jauregiaren kudeaketak urtero eragiten duen defizit handia.

Nafarroako Gobernuak eta Uharteko Udalak hainbat bilera eta harreman izan dituzte azken hilabeteotan, non bi alderdiek elkar ulertu eta jarrera ona izan baitute.

Hala ere, duela gutxi, Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak argi utzi zuen ezen Nafarroako Gobernuak, azpiegitura horretan egin beharreko inbertsioak bultzatzen lagunduko badu ere, ez duela egiturazko defizitaren zati bat bere gain hartuko, hori baita Uharteko Udalak behin eta berriz eskatu duena.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Lehenengoa: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du Uharteko Izotz Jauregiaren inguratzaile termikoan eta aldageletan egin beharreko inbertsioen kostuaren % 80 finantza dezan gutxienez ere, Uharteko Udalak 2024ko ekainean egindako oroitidazki baloratuko kalkuluen arabera.

Bigarrena: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du Uharteko Izotz Jauregiaren egiturazko defizitaren % 50 har dezan gutxienez ere bere gain, Uharteko Udalarekiko urteroko hitzarmen baten bidez, azken ekitaldiko emaitza-kontua hartuta erreferentzia modura horren kalkulua egiteko.

Iruñean, 2024ko ekainaren 20an

